- Tel: **948 29 02 90** (astelehenetik ostiralera, 14:30etik 21:30era, eta larunbat, igande eta jaiegunetan. 9:00etatik 21:00etara)
- Posta elektronikoa (**enfconsue@navarra.es**)



**BEROAK JENDE GUZTIA JO DEZAKE ETA BEREZIKI:**
- 65 urtetik gorakoak eta 4 urtetik beherakoak
- Pisu handiko pertsonak, gaixoak edo sendagai batzuk hartzen dituztenak
- Jarduera fisiko handia egiten duen jendea

**HORI DELA ETA, PREBENTZIOZ JOKATU BEHAR DA:**
- Ura edan, egarri ez bagara ere
- Ez dugu ariketa handirik eginen bero handieneko orduetan
- Eguzkitik babestuko gara, egunaren erdiko orduetan eguzkipean egon gabe, txanoak erabiliz, babes egokiko kremak emanez, eguzki betaurrekoak erabiliz....
- Etxea fresko mantentzen saiatuko gara, gauez aireberrituz eta egun argiz pertsianak jaitsiz.
- Osasun zerbitzuan galdetuko dugu, baldin eta 39 gradutik gorako sukarra badugu edo kontzientzian gorabeherak baditugu.
- Bero-alertatan, egunean bitan gutxienez jarriko gara harremanetan adinekoekin eta gomendioak betetzen dituztela ziurtatuko dugu.

**EL CALOR PUEDE AFECTAR A TODAS LAS PERSONAS Y EN ESPECIAL A:**
- Mayores de 65 años y menores de 4
- Personas con mucho peso, enfermas o que toman algunos medicamentos
- Personas que realizan una actividad física intensa

**POR ESO CONVIENE PREVENIR:**
- Beber agua aunque no se tenga sed
- No realizar ejercicio intenso en las horas de más calor
- Protegerse del sol evitando exponerse en las horas centrales del día, utilizando gorros, cremas de factor de protección adecuado, gafas de sol...
- Tratar de mantener la casa fresca ventilando por la noche y cerrando persianas por el día
- Consultar a los servicios de salud si hay fiebre de más de 39º o alteraciones en la consciencia
- En alertas por calor, contactar con las personas mayores al menos dos veces al día y asegurarse de que siguen estas recomendaciones.

# Osasuna eta beroa | Salud y calor

Uda garai ona izaten da beste urtaro batzuetan egin ez daitezkeen ekitaldiak eta plazerak gozatzeko, guztiak ere onuragarriak osasun eta ongizate hobea izateko. Uda partean, dena den, eguzkiarekin eta beroarekin batera, osasun arazoak izan ditzakegu: hau da, deshidratazioa, neke handia, karranpak, larruazaleko erupzioa, intsolazioa, bero-kolpea eta beste...

El verano es una buena época para disfrutar de placeres y actividades que en otras épocas del año no son posibles y que son positivos para la salud y el bienestar. Sin embargo, en verano, el sol y el calor pueden venir acompañados de problemas de salud: deshidratación, agotamiento, calambres, erupción cutánea, insolación, golpes de calor...



**ELIKADURA:**
Udan, ohikoak izaten dira deshidratazioa eta beherakoa. Hona hemen hainbat gomendio haiei aurrea hartzeko:
- Denetarik jan behar da, fruta, barazki eta entsalada ugari. Gordinik janez gero, ur askorekin garbituko ditugu. Ez jan arrautza gordinik edo gutxi egindakorik.
- Likidoak: 2 litro ur edanen dugu eta haren ordez ez dugu edanen edari azukredunik, gasdunik edo alkoholdunik.
- Elikagaiak kontu handiz kontserbatuko ditugu, beroaren eraginez galtzen baitira. Janaria hozkailuan gorde eta desizoztu behar dugu. Oso garrantzitsua da eskuak garbitzea janaria prestatu baino lehen.

**ALIMENTACIÓN:**
En verano son comunes la deshidratación y la diarrea. para prevenirlas se recomienda:
- Alimentación variada, con abundantes frutas, verduras y ensaladas. Lavarlas bien con mucha agua si se comen crudas. No comer el huevo crudo o poco hecho.
- Líquidos: Beber 2 litros de agua, no sustituirla por bebidas azucaradas, con gas o alcohólicas.
- Conservar los alimentos con especial cuidado porque con el calor se estropean fácilmente. Los alimentos deben guardarse y descongelarse en el frigorífico. Es muy importante lavarse las manos antes de prepararlos.

OSPAKIZUNA / CELEBRACIÓN





# Euskararen Jaia

# Fiesta del Euskera

**Parte-hartze handia eta giro ona aurtengo ospakizunean. Egun handia maiatzaren 6a izan zen, larunbata, Berriobeitin, baina aurreko astean ekitaldirik ere izan zen Añezkarren, Berriogoitin, Artika Berrin eta Aitzoainen eta, biharamunean, berriz, hilaren 7an, orientazio proba bat Ballariain, Elkarte eta Oteitza herrien artean.**

**Mucha participación y buen ambiente en la celebración de este año. El día grande fue el sábdo 6 de mayo en Berrioplano, pero la semana previa se programaron actividades en Añézcar, Berriosuso, Nuevo Artica y Aizoáin, y el domingo 7 una prueba de orientación entre Ballariain, Elcarte y Oteiza.**

Euskararen Eguna, aurten, ekitaldiz beterik etorri eta haren oihartzuna Zendeako hainbat herritara iritsi da.
Artika Berrin, adibidez, **Ametza Abesbatzak** osteguneko **pintxo-potea** girotu, **trikitixek kalejira** egin eta **Go!azen ikastaroko ikasleak** dantzan aritu ziren. Añezkarren eta Berriogoitin, berriz, txapak, pegatinak eta danborrak egin ziren Jaiaren ikurrarekin, familiarteko tailerretan. Bestalde, aurten lehen aldiz, **orientazio proba** bat egin zen Ballariain, Elkarte eta Oteitza herrien artean. 9 taldek parte hartu zuten eta hantxe aritu ziren euskararekin zerikusia zuten mugarrien bila. Saria gazta bat izan zen. Azkenean, Imanolek eta Olatzek osaturiko bikoteak eskuratu zuen.
Euskararen Eguna hasteko egindako kalejiran **Artikako eta Berriogoitiko erraldoiak**, **dantza taldea** eta **fanfarrea** aritu ziren, guztiak ere zendeako bizilagunek osatuak. Jai barrutian aritu ziren dantzan. Toki horretan ere **herri kirolak** jokatu ziren, adin honetako eta hartako parte-hartzaileak lehian aritu baitziren proba konbinatuan. Errigora ekimeneko produktuz beteriko saskiak izan zituzten sari. **Mikel Lasarte** bertsolariak probaren gaineko kronika egin zuen.
**Herri bazkarian** 220 lagun bildu eta, bazkalondoan, kantuan aritu ziren **Jaione eta Jon**en eskutik. Bazkalondoren, pilotalekuan, haurrek eta kozkorragoek hainbat **jolas gune** gozatu zituzten, **talo tailer** jendetsua egin zen eta, azkenik, **Zirko Loretsua**ren emanaldia. Jaia bukatzeko, **Gabezin** taldeak bazterrak ederki girotu zituen, jende guztia dantzarazteraino.

Este año la Fiesta del Euskera ha venido cargada de actividades, llevando su eco a distintos puntos de la Cendea.
A Nuevo Artica llegó de la mano de la **Coral Ametza**, que amenizó el **pincho pote** del jueves, la **kalejira de trikitixas** y los bailes de las alumnas del curso de **Go!azen**. En los **talleres familiares** de Añézcar y Berriosuso se elaboraron chapas, pegatinas y tambores con el símbolo de la Fiesta.
La novedosa **prueba de orientación**, que unió Ballariain con Elcarte y Oteiza, contó con 9 equipos, los cuales buscarón hitos relacionados con el euskera. El premio consistía en un queso, que finalmente se llevó la pareja compuesta por Imanol y Olatz.
El Día del Euskera comenzó con la kalejira que trajo a los **gigantes de Artica y Berriosuso**, el grupo de **danzaris** y la **fanfarre** compuestos ambos por vecinos y vecinas de la Cendea, que ofrecieron sus bailes y música en el recinto festivo. En tal espacio se celebró la competición popular de **deporte rural**, en la que participantes de diferentes edades compitieron, en una prueba conbinada, por las cestas con productos de Errigora. La crónica de las pruebas corrió a cargo del bertsolari **Mikel Lasarte**.
La **comida popular** contó con 220 comensales que, en la sobremesa, cantaron de la mano de **Jaione y Jon**. Después de la comida, en el frontón, peques y no tan peques disfrutaron de diferentes **espacios de juego**, un masivo **taller de talos** y, finalmente, de la actuación del **Zirko Loretsua**.
La fiesta acabó con una verbena a cargo del grupo **Gabezin**, que con su animado repertorio y las ganas que le echan sobre el escenario consiguió que el público se animase a bailar.

















## DIRULAGUNTZAK / SUBVENCIONES

### Euskara ikasteko laguntzak

2022eko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitarte euskara ikasteko ikastaroetan aritu diren Berriobeitiko udalerriko bizilagunek dirulaguntza eskatzeko aukera izanen dute datorren **uztailaren 4ra bitarte**, udal erregistroan.
Deialdiaren bidez, Udalak euskararen ikaskuntza bultzatu nahi du, horrek eragiten dituen gastuak neurri handian ordainduz.
Laguntzak errentaren arabera ematen dira eta % 70etik % 100era bitartekoak izan daitezke.
*Argibideak, Euskara Zerbitzuan (948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

### Ayudas por estudiar euskera

Los vecinos y vecinas del municipio de Berrioplano que hayan asistido a cursos de aprendizaje de euskera entre el 1 de julio de 2022 y el 30 de junio de 2023 podrán solicitar una subvención **hasta el próximo 4 de julio** en el Registro del Ayuntamiento.
Por medio de esta convocatoria, el Consistorio busca impulsar el aprendizaje del euskera, financiando en gran parte los gastos que genera.
Las ayudas se conceden en función de la renta y pueden ir desde el 70 hasta el 100%.
*Más información en el Servicio de Euskera (948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

### Dirulaguntzak udako kanpaldietarako

Udalak berriz ere atera du beken deialdia Berriobeitiko udalerritik kanpo egiten diren euskarazko udalekuetarako.
Eskaerak **irailaren 1etik 30era** eskatu beharko dira Udal Erregistroan. Laguntza errentaren arabera ematen da eta eta udalekuaren zenbateko guztiaren %20etik %70era bitartekoa izan daiteke.
*Argibideak, Euskara Zerbitzuan (948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

### Subvenciones para los campamentos de verano

El Ayuntamiento ha vuelto a convocar las becas para los campamentos de verano en euskera que se desarrollan fuera del municipio de Berrioplano.
Las solicitudes podrán presentarse **del 1 al 30 de septiembre** en el Registro municipal. La ayuda se conceden en función de la renta y pueden ir desde el 20 hasta el 70% del importe total del campamento.
*Más información en el Servicio de Euskera (948 30 31 39 / euskara@berriobeiti.eus)*

## UDAKO KANPALDIAK / CAMPAMENTOS DE VERANO

# “Tanta bidezko” izen-ematea

### Hutsik dauden lekuak betetzeko formula, behin haur kanpaldia hasitakoan

Haur kanpaldien udako kanpainak berritasuna ekarri du aurten, “tanta bidezko” izen-ematea jarri baita abian. Formula horren bidez, txapelketa hasi baino 10 lanegun lehenagora bitarte eska daiteke lekua, betiere leku hutsik bada. Horretarako, lekua eskatzeko, mezu bat bidali behar da **campamentosberrioplano@sedena.es** helbidera, honako datu hauek adierazita: txanda, egoitza eta hizkuntza, parte-hartzailearen izena, adina eta harreman-telefonoa. Era berean, galdetegi digitala betez eman daiteke izena (QR bidez dago eskuragai). SEDENA, jarduera kudeatzen duen enpresa, e-mail bidez jarriko da harremanetan interesdunarekin izen-ematea berresteko eta ordainketa egiteko.

# Inscripciones “por goteo”

### Una fórmula para completar las vacantes una vez iniciado el campamento infantil

Una novedad de la campaña de este año de los campamentos infantiles de verano es la puesta en marcha del sistema de inscripción “por goteo”. Esta fórmula permite solicitar plaza en una tanda hasta 10 días laborables antes de dar comienzo el campamento, siempre que haya plazas vacantes. Para ello, hay que solicitar la plaza enviando un correo a **campamentosberrioplano@sedena.es** con los siguientes datos: tanda, sede e idioma, nombre del participante, edad y teléfono de contacto). También es posible inscribirse completando un formulario digital (acceso desde el QR). SEDENA, la empresa que gestiona la actividad, contactará por e-mail con la persona interesada para confirmar la inscripción y realizar el pago.

## SENIDETASUNEZKO JAIA / FIESTA DE HERMANDAD



# Zendearen Eguna, irailean

Aurten, Berriobeitiko udalerriko hamar herriak berriz ere elkartuko dira Zendearen Eguna ospatzeko. **Irailaren 30ean** izanen da. Udan zehar, ohiko bitartekoak erabiliz emanen da aditzera behin betiko egitaraua, bai eta egoitza ere, hau da, udal webean eta sare sozialetan, baina herri bazkaria, musika emanaldiak eta ohiko ekitaldiak izanen dira.

# El Día de la Cendea, en septiembre

Este año los diez concejos del municipio de Berrioplano volverán a reunirse para celebrar el Día de la Cendea. Será el **30 de septiembre** y, aunque la programación definitiva y la sede se darán a conocer a lo largo del verano por los canales habituales (web municipal y redes sociales), no faltará la tradicional comida popular, las actuaciones musicales y otras actividades habituales en esta jornada.

## DIRULAGUNTZAK / SUBVENCIONES

### Cerrada la convocatoria de ayudas para fines culturales, deportivos y de juventud

Solo se ha recibido una solicitud en la convocatoria de ayudas para fines culturales, deportivos y de juventud del Ayuntamiento de Berrioplano, cuyo plazo de solicitud finalizó el pasado 22 de mayo. La solicitante es la Asociación Cabalgata San Isidro de Berrioplano.

### Itxi da kultur, kirol eta gazte xedeetarako laguntza-deialdia

Eskaera bakar bat jaso da Berriobeitiko Udaleko kultur, kirol eta gazte xedeetarako laguntza-deialdian. Eskaera-epea joan den maiatzaren 22an itxi zen. Eskaera Berriobeitiko Cabalgata San Isidro Elkarteak egin du.

## PROGRAMACIÓN D













De arriba a abajo / Goitik behera: “Pirados en un lugar de la Mancha”, “Baila!”, “Txus & Txu”, “On the beach”, “Soy la bomba”.



# Vuelve el teatro de calle a los pueblos

# Kale antzerkia herrietara itzuliko da

Ciclo organizado en colaboración con los Concejos

Zikloa Kontzejuekin batera antolatu da





### "Pirados en un lugar de la Mancha"
ILUNA PRODUCCIONES
**Viernes 4 de agosto, 18:00, frontón de Larragueta**
**Todos los públicos / 55 min**

De tanto rato que pasa viendo series y jugando a los videojuegos, Don Quijote se está empezando a volver algo chiflado. Dice ver cosas un poco raras y no es capaz de distinguir los sueños de la realidad. Por eso he decidido seguirle, para comprobar si eso que cuenta es verdad o es mentira. Y también para que no se haga daño. Me llamo Sancho y a los dos juntos nos llaman "Los pirados de la Mancha".

### "Baila!"
ADRIANA OLMEDO
**Viernes 25 de agosto, 18:30, frontón de Berriosuso**
**Todos los públicos / 60 min**

Kika y Kuka se presentan a un concurso de baile, pero antes quieren repasar contigo todas las coreografías. No es un espectáculo para estar sentado, es una propuesta para moverse, bailar y disfrutar en familia. Canciones modernas como "Happy", "Monkey Dance", "Madre tierra", "Don't go yet"; infantiles como "Baby shark", cantajuegos...; y rock de los 70. Kika y Kuka irán explicando los pasos para que nadie se pierda. ¡A bailar!

### "Txus & Txu"
TROKOLO TEATRO
**Viernes 8 de septiembre, 18:00, frontón de Añézcar**
**Todos los públicos / 55 min**

Txus y Txu se convierten en vecinos y tienen que aprender a vivir juntos. Sus personalidades y sus ganas por convivir en armonía les llevan a situaciones disparatadas. Un espectáculo dinámico, divertido, cercano y gestual que convoca la ternura y la risa. Un espectáculo para divertirse y disfrutar en familia.

### "On the beach"
AMICO
**Domingo 10 de septiembre, 18:30, plaza de Elcarte**
**Todos los públicos / 50 min**

Ion Amico y Txori Amico se sumergen de nuevo en el lenguaje gestual y de movimiento para ofrecernos un refrescante espectáculo.
La música y el humor acompañan a estos dos extravagantes personajes que en sus particulares vacaciones se divierten jugando a ser Tony Manero, surfistas, vigilantes de la playa, boxeadores, hombres rana, marineros o reinas de la natación sincronizada. Let´s dance!

### "Soy la bomba"
BEA LARRAÑAGA
**Viernes 15 de septiembre, 18:30 plaza de Loza**
**Todos los públicos / 50 min**

Goxoa Etxezarreta encuentra la felicidad haciendo lo que más le gusta: bombas de chantilly. Y, con ellas, quiere hacer feliz a todo el mundo. En su pastelería confitería *Ttukun* nos mostrará los secretos de este orgiástico manjar. Y nos propone una revuelta de bombas dulces y una explosión de felicidad. Esta divertida y confiada confitera nos propone cambiar el mundo con las bombas dulces como única arma.





### "Pirados en un lugar de la Mancha"
ILUNA PRODUCCIONES
**Abuztuak 4, ostirala, 18:00, Larragetako pilotalekua**
**Jende guztiarendako / 55 min**

Etengabe ari denez serieak ikusten eta bideojokoetan jolasten, On Kixote burutik joaten hasi da pixka bat. Gauza arraro samarrak ikusten dituela esaten du eta ez da gauza bereizteko zer den ametsa, eta zer, errealitatea. Horregatik, hari jarraitzea erabaki dut, kontatzen duen hori egia edo gezurra ote den jakiteko. Eta era berean, minik ez egiteko. Santxo dut izena eta bioi honela esaten digute: "Mantxako eroak".

### "Baila!"
ADRIANA OLMEDO
**Abuztuak 25, ostirala, 18:30, Berriogoitiko pilotalekua**
**Jende guztiarendako / 60 min**

Kika eta Kuka dantza-lehiaketa batera aurkeztu dira, baina aurrez koreografia guztiak saiatu nahi dituzte zurekin. Ez da eserita egoteko moduko ikuskizuna, mugitzeko, dantzatzeko eta familiartean gozatzeko baizik. Kantu modernoak, hala nola "Happy", "Monkey Dance", "Madre tierra", "Don't go yet"; haurrentzako kantuak, hots, "Baby shark", cantajuegos...; eta 70eko hamarkadako rocka. Kika eta Kuka pausoak azaltzen joanen dira, inor ere ez galtzeko. Dantzara!

### "Txus & Txu"
TROKOLO TEATRO
**Irailak 8, ostirala, 18:00, Añezkarko pilotalekua**
**Jende guztiarendako /55 min**

Txus eta Txu auzokide bihurtu dira eta elkarrekin bizitzen ikasi behar dute. Bakoitzak zer-nolako nortasuna duen kontuan hartuta, eta giro onean bizitzeko gogoak bultzaturik, egoera zentzugabeak sortuko dira. Ikuskizun bizia, jolasgarria, hurbila eta keinuzkoa, samurtasuna eta irria eraginda. Arras ikuskizun aproposa familiartean dibertitzeko eta gozatzeko.

### "On the beach"
AMICO
**Irailak 10, igandea, 18:30, Elkarteko plaza**
**Jende guztiarendako / 50 min**

Ion Amico eta Txori Amico berriz ere keinu- eta mugimendu-hizkuntzan barneratu dira, ikuskizun freskagarria eskaintzeko. Bi pertsonaia bitxi horiek musika eta umorea izanen dituzte bidelagun. Opor berezietan dabiltza eta jolasean ari dira Tony Manero izan nahian, edo surflari, hondartza-zain, boxeolari, gizaigel, marinel edo igeriketa sinkronizatuko erregina izan nahian. Let´s dance!

### "Soy la bomba"
BEA LARRAÑAGA
**Irailak 15, ostirala, 18:30 Lotzako plaza**
**Jende guztiarendako / 50 min**

Goxoa Etxezarreta zoriontsua da benetan gehien gustatzen zaion huraxe egiten: chantillyzko bonbak. Eta, bonba horien bidez, jende guztia egin nahi du zoriontsu. *Ttukun* bere gozo-dendan, jaki gozo-gozo horren sekretuak erakutsiko dizkigu. Eta bonba gozoen nahaski bat eta Zoriontasunezko leherketa bat proposatuko dizkigu. Gozogile dibertigarri eta fidakor horrek mundua aldatzeko proposamena eginen digu, baina esku artean arma bakar bat erabiliz: bonba gozoak.

## KIROLAREN JAIA BERRIOBEITIN / FIESTA DEL DEPORTE DE BERRIOPLANO



# Ekitaldiz betea eta jende askok parte hartuta

# Una fiesta del deporte muy variada y participativa

Maiatzaren 19tik 21era egin zen, Berriobeitin eta Artikan

Se celebró del 19 al 21 de mayo en Berrioplano y Artica

La edición de este año del Día del Deporte ha sido muy satisfactoria y, en general, se dio una participación muy alta en las actividades programadas, sobre todo en los juegos populares de la mañana en Artica de la mano de los clubes deportivos, Berritxaco, Articapatin y Korrikolaris. En las exhibiciones del frontón de Berrioplano la participación a lo largo la tarde rondó los 400 niños y niñas y fue muy alta la afluencia de público toda la tarde. Este año se recuperó la exhibición del grupo de sincronizada en las piscinas. Participaron todos aquellos deportes de las escuelas de Artica y Berrioplano más apropiadas para la exhibición.
En cuanto las actividades en la Ciudad Deportiva de Artica, todas las programadas salieron adelante, a excepción del BodyCombat. A causa del mal tiempo, por la mañana las clases de spinning y zumba se impartieron en las salas de la instalación, y por la tarde el swing y los bailes latinos en el bar, donde se generó muy buen ambiente gracias a la colaboración del local y a la gran afluencia de gente.

Aurtengo Kirolaren Eguna ederki atera da eta, oro har, partaidetza handia izan du; batez ere, goizean Artikan egindako herri-jokoetan, Berritxaco, Articapatin eta Korrikolaris kirol kluben eskutik. Berriobeitiko pilotalekuan egindako erakustaldietan, bestalde, 400 haur inguruk parte hartu zuten arratsaldean zehar, arratsalde osoan ere ikusleak erruz bertaratuta. Aurten, iaz ez bezala, sinkronizazio taldearen erakustaldia egin da. Erakustaldia egiteko aproposenak diren Artikako eta Berriobeitiko eskoletako kirol guztiek parte hartu dute.
Artikako Kirol Hirian egindako jarduerei dagokienez, programan zeuden guztiak egin dira, BodyCombat izan ezik. Eguraldi txarraren ondorioz, spinning eta zumba eskolak instalazioko aretoetan eman dira eta, arratsaldean, swinga eta dantza latinoak tabernan, giro ederra sortuta lokalaren laguntzari esker eta jende asko bertaratu izanari esker.



# RAÚL ALONSO, un nadador sin límites

En la edición de este año del Día del Deporte, el Ayuntamiento de Berrioplano reconoció la trayectoria del vecino de Artica Raúl Alonso, laureado nadador del club Anfas Navarra. Raúl fue diagnosticado de niño de discapacidad intelectual, circunstancia que no le ha impedido llegar a ser un deportista de alto nivel, imprescindible en la selección navarra de natación adaptada y con más de 20 medallas a nivel nacional con su club.
Entrena 5 días por semana y nada todos los estilos, aunque sus pruebas favoritas son las de fondo. Viene cosechando éxitos desde 2013, pero sus más recientes logros en los campeonatos de España en categoría absoluta son: 6º en 400 m libres, 7º en 50 m mariposa y 8º en 100 m libres en 2021; bronce en 1.500 m libres y bronce en 400 m estilos en 2022; y bronce en 1.500 m libres y bronce en 400 m estilos en este año 2023.
Además, en 2022 obtuvo la licencia de buceador de 1 estrella (máximo de 18 metros de profundidad siempre acompañado de un instructor), lo que le convierte en la primera persona con discapacidad intelectual con licencia de buceo con botella, y este año ha participado en el Campeonato Navarro de fotografía submarina, celebrado el 2 de junio en Getaria, que le ha dado el pase para acudir al campeonato de España el próximo mes de octubre en Lanzarote.

# RAÚL ALONSO, Mugarik gabeko igerilaria



Aurtengo Kirolaren Egunean, Berriobeitiko Udalak Raúl Alonso Artikako bizilagunaren ibilbidea aitortu zuen. Raúli desgaitasun intelektuala diagnostikatu zioten txikitan, baina horrek ez dio eragotzi goi mailako kirolaria izatea, eta haren parte-hartzea behar-beharrezkoa da Nafarroako igeriketa egokituko selekzioan; gainera, 20tik gora domina eskuratu ditu maila nazionalean bere klubarekin.
5 egunez aritzen da entrenatzen astean, estilo guztietan moldatzen da, baina bere probarik gogokoenak iraupenekoak dira. Ederki ari da 2013az geroztik, baina hona hemen azken urteetan Espainiako txapelketan erdietsi dituen lorpenak, kategoria absolutuan: 6. tokia, 400 m libreetan; 7. tokia, 50 m tximeleta eta 8. tokia 100 m libreetan, 2021ean; brontzea 1.500 m libreetan, eta brontzea lau estilotako 400 m-etan, 2022an; eta brontzea 1.500 m libreetan eta brontzea lau estilotako 400 m-etan, 2023an.
2022an, gainera, 1 izarreko urpekari-lizentzia eskuratu zuen (gehienez 18 metroko sakonerakoa, irakasleak lagunduta beti). Horrenbestez, urpekaritza botiladunean lizentzia duen lehena da desgaitasun intelektuala duten pertsonen artean eta, aurten, Nafarroako itsaspeko argazki-txapelketan parte hartu du, Getarian ekainaren 2an jokatua, eta Espainiako txapelketara joateko txartela eskuratu du heldu den urrian Lanzarotera joateko.

## OFERTA MUNICIPAL / UDAL ESKAINTZA



*Información completa*
*Informazio osoa*

# No hay excusa para no hacer deporte en verano

# Aitzakiarik ez dago udal kirolik ez egiteko

Actividades deportivas y de ocio para todas las edades

Kirol eta aisia jarduerak adin guztientzat

### ARTICA

**Intensivos de natación** bebés, infantiles y personas adultas
**Cursos infantiles:** juegos deportivos (4-7 años), txiki zumba (4-7 / 8-12 años), jumping kids (4-7 / 8-12 años)
**Cursos juveniles:** sala fitness, zumba, crosstraining (13-16 años)
**Personas adultas:** aquagym y actividades fitness: zumba, pilates, cross training, body pump, ciclo indoor
**CAMPUS MULTIACTIVIDAD:** grupos 4-7 años y 8-12, de 09:00 a 14:00, con servicio de guardería (8:30-9:00 y 14:00-14:30). Tandas de junio a septiembre
**Viernes divertidos**
- **23 de junio:** 18:00-18:45 Parkour infantil (8-12 años)
- **30 de junio:** 18:00-19:00 magia
- **21 de julio:** 17:30-18:00 Juegos acuáticos (infantil) 18:30-19:30 Boot Camp AquaSpash (› 16)
- **28 de julio:** 18:00-19:00 Masterclass AquaZumba (todas las edades)
- **4 de agosto:** 18:00-19:00 Masterclass CardioBox (› 16)
- **11 de agosto:** 18:00-19:00 Masterclass AquaCross (› 16)
- **18 de agosto:** 17:30-18:30 Talleres Infantiles

**Día del abonado**
- 26 de agosto

### ARTIKA

**Igeriketa ikastaro trinkoak** umetxoetan, haurretan eta helduetan
**Haur ikastaroak:** kirol jokoak (4-7 urte), haur zumba (4-7 / 8-12 urte), jumping kids (4-7 / 8-12 urte)
**Gazte ikastaroak:** fitness aretoa, zumba, crosstraining (13-16 urte)
**Helduak:** aquagym eta fitness jarduerak: zumba, pilates, cross training, body pump, indoor zikloa
**JARDUERA ANITZA CAMPUSA:** Taldeak: 4-7 urte eta 8-12 urte, 09:00etatik 14:00etara, haurtzaindegi zerbitzuarekin (8:30-9:00 eta 14:00-14:30). Txandaka ekainetik irailera
**Ostiral dibertigarriak**
- **Ekainak 23:** 18:00-18:45 haurrendako parkour-a (8-12 urte)
- **Ekainak 30:** 18:00-19:00 magia
- **Uztailak 21:** 17:30-18:00 Uretako jolasak (haurrak) 18:30-19:30 Boot Camp AquaSpash (› 16)
- **Uztailak 28:** 18:00-19:00 AquaZumba Masterclass (adin guztiak)
- **Abuztuak 4:** 18:00-19:00 CardioBox Masterclass (› 16)
- **Abuztuak 11:** 18:00-19:00 AquaCross Masterclass (› 16)
- **Abuztuak 18:** 17:30-18:30 Haurrendako tailerrak

**Abonatuaren eguna**
- Abuztuak 26

### BERRIOPLANO

**Intensivos de natación** bebés, infantiles y personas adultas, en castellano y euskera y varias tandas
**Personas adultas:** activate gym, hidrogym deep water
**Miércoles locos**
- **28 de junio:** 18:00-19:00 magia
- **19 de julio:** 18:00-18:45 parkour infantil (8 a 12 años)
- **26 de julio:** 10:30-14:00 / 16:00-20:00 pasarela hinchable acuática
- **2 de agosto:** juegos acuáticos
- **9 de agosto:** 17:30-18:30 talleres infantiles
- **16 de agosto:** 17:30-18:30 juegos deportivos infantiles
- **23 de agosto:** 18:00-19:00 aquazumba (todas las edades)
- **30 de agosto:** 18:00-19:00 danzas urbanas (infantil)

### BERRIOBEITI

**Igeriketa ikastaro trinkoak** umetxo, haur eta helduendako, gaztelaniaz eta euskaraz, eta hainbat txanda
**Helduak:** activate gym, hidrogym deep water
**Asteazken eroak**
- **Ekainak 28:** 18:00-19:00 magia
- **Uztailak 19:** 18:00-18:45 haurrendako parkour-a (8 -12 urte)
- **Uztailak 26:** 10:30-14:00 / 16:00-20:00 uretako zaldain puzgarria
- **Abuztuak 2:** uretako jolasak
- **Abuztuak 9:** 17:30-18:30 haur tailerrak
- **Abuztuak 16:** 17:30-18:30 haurrendako kirol jokoak
- **Abuztuak 23:** 18:00-19:00 aquazumba (adin guztiak)
- **Abuztuak 30:** 18:00-19:00 hiri-dantzak (haurrak)

## ORDUTEGIAK / HORARIOS

### Uda kirol instalazioetan

Hala Berriobeitiko nola Artikako kirol instalazioetan udaldia **ekainaren 10ean hasi eta irailaren 10ean bukatuko da**. **Berriobeiti**n, igerileku estalien geldialdi teknikoa abuztuaren 29tik irailaren 9ra izanen da. Artikan, irailaren 11tik 24ra.
Berriobeitiko instalazioen udako ordutegiari dagokionez, 10:00etan ireki eta 22:00etan ixten dira, baina igerilekuek beste ordutegi bat dute, hala klimatizatuek nola kanpoaldekoek: 10:00etatik 21:00etara.
**Artikako instalazioak** 8:00etan ireki eta 22:00etan ixten dira, baina igerileku klimatizatuen ordutegia 8:00etatik 21:30era da; gimnasioarena, 8:00etatik 21:45era; eta kanpoaldeko igerilekuena, berriz, 10:00etatik 21:00etara.
Uda honetan, Artikako Kirol Hiriko **askaldegiak** gauerdira arte egonen dira zabalik astez, eta, 1:00era arte, berriz, ostiral eta larunbatetan.

### Verano en las instalaciones deportivas

Tanto en las instalaciones deportivas de Berrioplano como en las de Artica la temporada estival **comienza el 10 de junio y finaliza el 10 de septiembre**. En Berrioplano, la parada técnica de las piscinas cubiertas será del 29 de agosto al 9 de septiembre. En Artica, del 11 al 24 de septiembre.
En **Berrioplano** las instalaciones abren en verano a las 10:00 y cierran a las 22:00, pero el horario de las piscinas, tanto las climatizadas como las de exterior, es de 10:00 a 21:00.
Las **instalaciones de Artica** abren a las 8:00 y cierran a las 22:00, pero el horario de las piscinas climatizadas es de 8:00 a 21:30; el del gimnasio de 8:00 a 21:45; y el de las piscinas exteriores de 10:00 a 21:00.
Este verano los **merenderos** de la Ciudad Deportiva de Artica permanecerán abiertos entre semana hasta las 0:00 y los viernes y sábados hasta la 1:00.

## ONDAREA / PATRIMONIO



Se tienen noticias de este antiguo Palacio Cabo de Armería desde 1523. Está situado cerca de la iglesia de Santa Eulalia y lo conforman varios cuerpos. Presenta una fachada de un solo nivel flanqueada por dos torreones. A la derecha se ve una estructura de planta rectangular y cubierta a dos aguas. En su fachada se abre una larga y estrecha ventana. A la izquierda se ve otro edificio de similares características. En el centro hay un muro más bajo, que une los edificios laterales y en el que se ve una puerta de medio punto. En la clave del arco que la rodea, hay un escudo de armas tallado en la piedra.
El Ayuntamiento remozó su estructura en 2011. Una de las actuaciones en el cuerpo central consistió en colocar un muro cortina de vidrio.

### Palacio de Berriosuso

### Berriogoitiko jauregia

Jauregia Oinetxe ederra da eta haren inguruko lehen agiria 1523koa da. Santa Eulalia elizatik hurbil dago eta hainbat gorputzek osatzen dute. Maila bakarreko fatxada du, alde banatan bi dorre dituela. Eskuinean oinplano laukizuzeneko egitura dauka eta bi isurialdeko teilatua.
Fatxadan leiho luze eta mehar bat dago. Ezkerrean antzeko ezaugarriak dituen eraikin bat ageri da. Erdigunean horma apalago bat dago alboetako eraikinak lotzeko, erdi puntuko ate bat daukana. Ate inguruko arkuko giltzarrian armarri bat dago, harrian zizelkatua.
Udalak 2011n jauregiaren egitura berritu zuen. Erdiko gorputzean egindako lanetako bat beirazko gortina-horma bat paratzea izan zen.



## CALLES DE LA CENDEA DE BERRIOPLANO
## BERRIOBEITI ZENDEAKO KALEAK

### JUAN DE BERRIO (BERRIOBEITI) / JUAN DE BERRIO (BERRIOPLANO)



Juan de Berrio kalea Berriobeitin dago, Ipar haizearen pasealekuaren eta Purifikazioko Gure Ama kalearen artean. XVI. mendeko pertsonaia historiko bati zor dio izena, Berriobeitiko Jauregiaren jabe izandakoari, hain zuzen ere.
Egiarteko artxidiakonoa eta bikario nagusia izan zen, eta Gorte Orokorretan jarlekua izan zuen. 1536an Tafallan irekitako Gorteetan, erregeordearen aginduz, jarlekuz aldatu behar izan zuen, berea Iratxeko Andre Maria monasterioko abadeari uzteko. Hura ikusirik, Gorteak kexatu ziren, legez kontrakoa zelakoan. 1537ko otsailean, Nafarroako errege-kontseilari hasi zen, Juan Redin lizentziatuak hiltzean hutsik utzitako postua hartuta. 1566ean zendu zen arte bete zuen kargu hura.
Ioseba Gil Berriobeitiko zinegotzi eta historialaria zenak egindako dokumentazio-lan sakonaren ondorioz, 2018az geroztik Juan de Berrio Artikako konpartsako erraldoietako bat da eta, 2019tik aurrera, baita bere emaztea ere, hots, Elvira Izukoa.

La calle Juan de Berrio, situada en Berrioplano entre las calles Paseo Cierzo y Nuestra Señora de la Purificación, debe su nombre a un personaje histórico del siglo XVI, propietario del Palacio de Berriosuso.
Fue arcediano de Eguiarte y vicario general, teniendo asiento en Cortes Generales. En las que se inauguraron en Tafalla en 1536, tuvo que cambiar de asiento por orden del virrey y ceder el suyo al abad del monasterio de Santa María de Irache, con la siguiente queja de las Cortes por considerarlo ilegal. Comenzó su andadura como consejero real de Navarra en febrero de 1537, ocupando la plaza que quedó vacante al fallecer el licenciado Juan Redin. Ocupó este cargo hasta que falleció, en 1565.
Desde 2018, después de un extenso trabajo de documentación a cargo del que fuera concejal de Berrioplano e historiador Ioseba Gil, Juan de Berrio es en uno de los gigantes de la comparsa de Artica, y desde 2019 también su mujer, Elvira de Izu.

# LOTZAKO AINTZIRA
# LA BALSA DE LOZA

Lotzako aintzirari buruzko argibideak:
http://balsadeloza.blogspot.com/
Más información sobre la balsa de Loza:
http://balsadeloza.blogspot.com/

**FAUNA**

## CIGÜEÑA NEGRA

En esta ocasión le toca el turno a una especie rara, pero cada vez menos rara, se trata de la cigüeña negra. Básicamente, en su aspecto y coloración, es como una cigüeña blanca pero, haciendo honor a su nombre, tiene el dorso negro y el cuello también. Contrasta fuertemente con ello el color del pico y de las patas, rojo intenso.

La cigüeña negra es, sin duda, mucho más escasa que la cigüeña blanca y con un comportamiento y distribución también muy diferente.



En Navarra es la típica especie que nos visita solo en las épocas migratorias y son los ejemplares que van a sus áreas de reproducción en la Europa del este. Sin embargo, esto puede llevarnos a engaño ya que curiosamente una de las poblaciones de esta especie es nidificante en el cuadrante suroeste de la Península Ibérica. En concreto, en Loza las primeras observaciones registradas son de la segunda semana de febrero, cuando los ejemplares inician su migración primaveral hacia el norte, y las últimas de mediados de junio. También existe alguna observación al final de septiembre y comienzos de octubre, pero mucho más escasas. Los ejemplares que atraviesan Navarra son aves que migran hasta debajo del Sáhara.

Nunca es una especie que se presente en grandes números cuando está sedimentada en la laguna, y lo más común es que se observen individuos aislados o parejas. Rarísimamente más de 5 ejemplares. Los mismos permanecen en la balsa unas horas, o como mucho unos días, hasta que se alimentan, se recuperan, y aprovechando el buen tiempo continúan su viaje migratorio.

**Texto:** Ignacio Deán (Sociedad de Ciencias Naturales Gorosti) **Fotografía:** Gonzalo Deán

## ZIKOINA BELTZA

Aldi honetan espezie bakan batez mintzatuko gara, baina, egia esan, orain ez da hain bakana. Zikoina beltza da. Funtsean, itxuraz eta kolorazioz, zikoina zuria bezalakoa da, baina izenak dioen gisan, bizkarraldea beltza du eta lepoa ere bai. Horregatik, izugarri nabarmentzen da mokoaren eta hanken kolore gorri min hori.

Zikoina beltza, zalantzarik gabe, zikoina zuria baino askoz ere urriagoa da, eta portaeraz nahiz banaketaz ere oso ezberdina.

Nafarroan, migrazio-garaietan soilik bisita egiten digun espezie bereizgarri horietako bat da; ekialdeko Europan dituzten ugaltze eremuetara doazen aleak dira, zehazki. Dena dela, hori engainagarria izan daiteke; izan ere, espezie horietako populazioetako bat habia-egilea da Iberiar penintsulako hego-mendebaldeko koadrantean. Lotzan erregistraturiko lehen behaketak otsailaren bigarren astekoak dira, aleek udaberriko migrazioa hasten dutenean iparralderantz jotzeko. Azkenak, berriz, ekain erdialdekoak. Halaber, irail bukaeran eta urri hasieran, bada behaketaren bat, baina askoz ere gutxiago. Nafarroa zeharkatzen duten aleak Sahara azpiraino joaten dira.

Sekulan ez da espeziearen kopuru handirik ikusten zikoina beltza aintziran finkatua dagoenean; hau da, ohikoena izaten baita gehienez ere ale bakartuak edo bikoteak ikustea. Nekez 5 ale baino gehiago. Aintziran hainbat orduz gelditzen dira edo, gehienez jota, egun batzuk. Bitartean, elikatu egiten dira eta, behin indarberritutakoan, migrazio-bidaiari berreltzen diote, eguraldi onaz baliaturik.

**Testua:** Ignacio Deán (Gorosti Natur Zientzi Elkartea) **Argazkia:** Gonzalo Deán

# POR EL INTERÉS COMÚN
# DENON HOBE BEHARREZ

## Suteen prebentzioa

Nafarroan mendiko suak prebenitu, zaindu eta itzaltzeko 2023ko Planak Estatuko Meteorologia Agentziaren meteoalertak erabiltzen ditu irizpide gisa:

**Meteoalerta gorria**rekin, hau da, 40 gradu Pirinioetan eta 42 Nafarroako gainerako lekuetan, debekatua egonen da sua piztea lur ez-urbanizagarriko baratzeetan (barbakoak, suak, camping gas...); debekatua egonen da, halaber, uzta-makinak eta fardel-makinak erabiltzea; makina astunekin egiten diren oihan lanak debekatuko dira; eta ez da zilegi izanen erabiltzea deflagrazioa, txinpartak edota deskarga elektrikoak eragin ditzaketen makinarik oihan lurretik 400 metrora baino gutxiagora.

**Meteoalerta laranja**rekin (39ko edo hortik gorako tenperaturak; 37, Pirinioetan) eta horiarekin (36ko edo hortik gorako tenperaturak; 34 Pirinioetan), oihan, uzta eta fardel lanak baimenduko dira, prebentzio-neurri jakin batzuk hartuta.

Udalak beretzat gorde du bando bat argitaratzeko eskubidea suaren erabilera debekatzeko bai hiriteremuetan, bai bide publikoetan, muturreko arriskua dagoenean.

Kontsultatu QR honetan uda honetako suteen kontra Nafarroan eginen den kanpainari dagokion kontu oro.



## Prevención de incendios

El Plan Anual 2023 para la Prevención, Vigilancia y Extinción de incendios forestales en Navarra emplea las meteoalertas de la Agencia Estatal de Meteorología como criterio:

Con **meteoalerta roja**, es decir, 40 grados en el Pirineo y 42 en el resto de Navarra, no se podrá encender fuego en huertas de terreno no urbanizable (barbacoas, fogatas, camping gas...); estará prohibido el uso de cosechadoras y empacadoras; se prohibirán las labores forestales con maquinaria pesada; y no se podrá utilizar maquinaria que pueda generar deflagración, chispas o descargas eléctricas en obras a menos de 400 m de suelo forestal.

Con **meteoalerta naranja** (temperaturas de 39 o más grados; 37 en el Pirineo) y amarilla (temperaturas de 36 o más grados; 34 en el Pirineo), se autorizarán labores forestales y tareas de cosecha y empacado con la adopción de determinadas medidas preventivas.

El Ayuntamiento se reserva el derecho a publicar un bando para prohibir el uso del fuego en zonas urbanas y vías públicas en caso de riesgo extremo.

Consulta en este QR todo lo relativo a la campaña navarra contra incendios para este verano









Kirolaren Jaia maiatzaren 19tik 21era ospatu zen Berriobeitin eta Artikan

La Fiesta del Deporte se celebró del 19 al 21 de mayo en Berrioplano y Artica




